2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 71 GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Programa: 10 HAURRAK ETA GAZTEAK, SUSTAPENA

IQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Departamento: 71 INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD

Programa: 10 PROMOCION, INFANCIA Y JUVENTUD

SAILAREN MEMORIA

I. MEMORIA

Arabako Lurralde Historikoko haur, nerabe eta gazteentzako ekimenak, jarduerak eta laguntzak jasotzen ditu programak. Helburua da bizitzako aro horietan pertsonei erabateko garapena izaten laguntzeko politikak bultzatzea eta, horretarako, beren autonomia eta emantzipazioa ahalbidetuko duten aisialdi eta olgeta ekintzak egitea, arreta berezia jarriz balioen lanketan eta gazteen ahalduntzearen sustapenean.

Udaraba

Udaraban sartzen dira Arabako haur, nerabe eta gazteentzako udako aisialdi hezigarriko jarduera guztiak. Jolaserako eta bizikidetzarako espazioa da, eta helburu du aisialdi osasungarria izatea, norberaren autonomia sendotzea eta errealitate desberdinak ezagut daitezen sustatzea, berdintasun, errespetu eta elkartasun balioetarantz urratsak egiteko.

Ikastetxeetarako jarduerak

GFEk jarduera hezigarriak eskaintzen dizkie Arabako lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeei.

Jarduera horiek helburu dute curriculumeko edukiak eta ikaskuntzako gaitasunei loturiko edukiak sakontzea ikasgelatik kanpo, baina, horrez gain, sustatzen dute ikasleek bizikidetza, berdintasun eta elkartasun balioak barneratzea astialdiko berezko metodologiaren bitartez.

GFEren aterpetxeetan egiten dira eta askotariko xedeak dituzte, hala nola ingelesa ikastea eta hizkuntza horretan murgiltzea; euskara ikasgelatik kanpo ere lantzea eta nork bere egitea; Arabako historia, kultura eta natura ondarea ezagutzea; kirola egitea naturan; edo ingurumena errespetatu eta zaindu beharraren kontzientzia barneratzea. Eta, horretaz guztiaz gain, bizikidetzak berak eta parekoekin egoteak dakartzan ikasketak ere bai.

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

El programa recoge distintas iniciativas, actividades y ayudas destinadas a la infancia, adolescencia y juventud en el Territorio Histórico de Álava. El objetivo es impulsar políticas dirigidas a favorecer el pleno desarrollo de las personas durante esos periodos de la vida, mediante acciones en materia de ocio y esparcimiento que posibiliten su autonomía y emancipación, con una especial incidencia en el trabajo en valores y el fomento del empoderamiento de las jóvenes.

Udaraba

Udaraba enmarca todas las actividades de ocio educativo de verano dirigidas a la infancia, adolescencia y juventud de Álava. Son un espacio lúdico y de convivencia con el objetivo de disfrutar de un ocio saludable, afianzar la autonomía personal y promover el conocimiento de diferentes realidades para caminar hacia valores de igualdad, respeto y solidaridad.

Actividades para Centros Escolares

EL IFJ ofrece una serie de actividades educativas a centros escolares de Álava de primaria y secundaria.

Estas actividades, además de tener el objetivo de ahondar en contenidos curriculares y competenciales de aprendizaje fuera del contexto del aula promueven una interiorización por parte del alumnado de valores de convivencia, igualdad y solidaridad a través de la metodología propia del Tiempo Libre.

Se desarrollan en los albergues del IFJ y responden a objetivos diversos que van desde el aprendizaje e inmersión lingüística en inglés o el trabajo y asimilación del euskera fuera del contexto aula al conocimiento del patrimonio histórico-cultural y natural alavés, el deporte en la naturaleza o la interiorización de una conciencia de respeto y cuidado medioambiental; todo ello, además de los aprendizajes derivados de la propia convivencia y el disfrute con iguales.

Berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa

Genero indarkeria gizartean bistarago egon dadin eta errazago identifikatzeko, Gazteriaren Foru Erakundeak "Hitz kolpez" izeneko jarduera prestatu du. Programa hori Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuarekin lankidetzan gauzatzen da, eta helburutzat dauka Arabako haur, nerabe eta gazteak genero indarkeriaz sentsibilizatzea eta kontzientziatzea. Horretarako, eguneroko indarkeriazko eta genero desberdintasuneko egoerak identifikatzen dira, eta haiei buruz gogoeta egiten da.

Ikasleentzako laguntzak, joan-etorrien gastuetarako

Laguntzak unibertsitateko edo unibertsitatez kanpoko ikasketak egiteko bizi diren udalerritik beste batera joan behar duten ikasle gazteentzat. Laguntza horien helburua da gazteek prestakuntza jaso dezaten bultzatzea.

Toki erakundeak

Toki erakundeei laguntzearen bidez, indartu nahi ditugu Arabako herrietako gazteentzako zerbitzuak, diruz lagunduz gazteentzako ekipamenduetan egiten diren jarduerak: gazteguneak, gaztelekuak…

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

COVID-19aren pandemiaren ondoriozko mugekin, aterpetxeetako edukiera murriztea ekarri baitute, aurreikusitako helburu orokorrak bete dira:

- Pertsonen garapen osoa bultzatzeko politikak bultzatzea
- Balioetan lan egitea eta gazteen ahalduntzea sustatzea.

Sensibilización para la Igualdad

En aras de una mayor visibilización e identificación social de la violencia de género, el Instituto Foral de la Juventud desarrolla la actividad denominada "A Golpe de palabra- Hitz kolpez". Este programa se lleva a cabo en colaboración con el Servicio de Igualdad de la Diputación Foral de Álava. Su objetivo es sensibilizar y concienciar a la infancia, adolescencia y juventud de Álava en violencia de género, identificando situaciones cotidianas de violencia y desigualdad de género y reflexionando sobre ellas.

Ayudas a estudiantes para gastos de desplazamiento

Ayudas a jóvenes estudiantes que cursan estudios universitarios o no universitarios que se desplacen de un municipio a otro distinto de su domicilio. El objetivo de estas ayudas es impulsar el acceso a la formación de las personas jóvenes.

Entidades locales

A través del apoyo a las entidades locales queremos potenciar la prestación de servicios a las personas jóvenes de las localidades alavesas, sufragando económicamente las actividades que se llevan a cabo en equipamientos para jóvenes: gazteguneak, gaztelekuak,…

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Con las limitaciones derivadas de la pandemia del Covid-19, que han supuesto la reducción de aforo en los albergues, se han cumplido los objetivos generales previstos:

- Impulsar políticas dirigidas a favorecer el pleno desarrollo de las personas
- Impulsar el trabajo en valores y el fomento del empoderamiento de las personas jóvenes.